


4.11.11
588



JESUKISTO EREGEARI BEDERATZURENA

Zabala-Arana'tar Joseba

Miren-Biotz-Semea



Guipuzkoeraz



V
84



M 8558
R. 36 227

A.T.V.
5884

JESUKISTO ÉREGEARI BEDERATZUÉNA



Zabala-Arana'tar Joseba

Miren-Biotz-Semeak

Gipuzkoeraz antolatu du



Bilabona'n Aristegi'tar Kepa'ren irafkolan

1928



*Zabala-Arana'taí Irene
eta
Zabala-Arana'taí Kariñe
lobatxüai
Z-A'taí J., M. B. S'ak*



Zabala-Arana'taí Joseba

O A R A

XI Pi Doipuruaren aginduz urilaren azkenengo igandean Jesukisto Efegearen jaya ospatzen da 1926'g. urteik eta gero. Jai au obeki ospatzeko, lendanik gertutzea bidezkoa da, berderatzuren-bidez edo: ortarako da, ba, idaztiño au. Maria'ren Biotzeko Semetako Torra abak Argentina'n erderaz egin duanaz antzera antulatu det, Aita Santuak bere idazki nagusian dakařzkin oldozkun edo usteak, batez ere, aitaturikan. Jesukisto Bakaldunaren eta bere Ama deunaren aintzarako beike!



JAUBEA DAU

Euzko Akademiaren Institutua

Libroa

1928

JESUKISTO ÉREGEARI BEDERATZUÉNA

Gurutze santuaren . . .

Jesukisto nere Jaun . . .

EGUNEROKO OTOITZA

Jesukisto gure Jaun eta Jainko! Kristau zintzo guziak zeru-luñetako Éregetzat arñu ta aitortzen zaitue, izan ere, danaren Buru ta Érege nagusia zera-ta. Zure menpeko ta moñoyak izan nai degu, ta auxe erakusteagatik, emen zere auñean auzpez gaude. Gure Érege zera, Jainkoa zeralako; gure Érege zera, Eroslea zeralako; gure Érege zera, Aita Jaungoikoak zeruan eta luñean mendetasun osoa eman dizulako; gure érege zera, Éregetzat aukeratu ta zere menpean goiko jaureñia, zeruko éreñua, irabazi nai degulako. Zure éregetzari degozkion ezkubideak ikasi ta zere aotiko itzak entzunaz gure biotzak berotu ta kizkaltzera gañoz, zure menpeko zintzoai dagokienez bizi, ta bear izanezkero zere omenagatik iltzeko ere gertu egon gaitezten.

Jesukisto Éregearen Ama, zeru-luñetako Éregiña! Gure eskapenak zure Seme maite oñeri aurkeztu ezazkiozu ta gure alde otoitz-egin. Baita, bere aintzarako, gure animen onerako ta gizon guzien biotzetan Jesukisto'ren agintea ezartzeko, bederatzi-urñen au ongi egin dezagula egizu. Olaxen.

EGUN BAKOITZEKOA

I Eguna

JESUKISTO, JAINKOA DANEZ, ÉREGE DA

Jaungoikoa berez da izaki guzien Érege, beren Egilea dalako. Jainkoa, ordea, Irukoitza da: Aita, Semea ta Goteuna edo Espiritu Santua. Semeari Aitaren Itza deritzayo; eta «Itza betidanik Jainkoa da, ta bere bidez egin da dena, ta ez da bera-gabe egin egindako ezer ere, bizia beragan dago-ta.» Eta nor da Jesukisto? Gu erosi ta guri nola bizi erakustearen gizon egindako, Jainkoaren Semea da Jesukisto. Beraz, Jesukisto ere, Jainkoa danez, egizko Érege da. Eta bere aginteak, ez tokiz ta ez aldiz edo denporaz, ez du neuririk; izaki guziak bere menpean daude. Aukeramena duten izakiak, gizonak, bere menpetik ezin dute iges-egin; Jesukisto, edo leunki bere erukiaren bidez, edo gogoarki bere zuzendasunaren bidez, gizon guzien Érege izango da: zeruko zoriondunen Érege bezela su-leizietako zoritxaerakoena ere. Bidezkoa da, ba, orain Jesukisto Éregetzat aitoritu ta bere erukia geregangatzea; zorakeria, ordea, bestela egitea.

Éregeak bere menpekoai agintzeko eskubidea du; eta menpekoak beren éregearen aginduak betetzen bearfuta daude. Zeru-luñetako Érege nagusia dan Jesukisto Jaungoikoak, ba, izaki guziaz agintzen die, ta izakiak bere esana zearo betetzen dute: izanak etengabe bira ta bira ari dirala bere aintza edo gloria zabaldurik; itxaso, mendi ta ibayak bere aunditasuna agerturik; zuaitz eta abereak, bakoitza bere mota-arauz bizi ta askotu egiten dirala, beren Éregearen eskuzabaltasuna erakutsirikan... Gizonari, batez ere, Jainkoak bere amar aginduak ezari dizkio. Aginduok gizon guzientzako dira: kristaudentza-

ko ta kristau ez diranentzako, aberatsentzako ta beartsuentzako, jakitunentzako ta jakitun ez diranentzako. Agindu oyek betetzen dituana zerurako bidez zuzen doa; betetzen ez dituana, ordea, su-leizerako, inpernurako, bidez dabil.

Jesukisto Éregetzat dezun kristaua! Aurzarotik, txikitandik, buruz ikasita dakizkizu Érege onen aginduak, eta zearo betetzen beartuta zaudela ere ba-dakizu. Bete al dituzu? Batenbat aztuta bezela ez ote dezu eduki? Zere buru-barena aztertu ezazu, erabaki sendoak eratu, ta bear dezun eskaia, grazia, Jaunari eskatu...

EGUNEROKOA

Eskatu dana iristeko, ta XI Pio'k emaniko barkapen osoa irabazteko asmoz guztiak uringo o-toitza esango dute:

Jesukisto gure Jauna! Izaki guzien Érege zerala aitortzen det. Zuk egin dituzu gauza guziak. Bete ezazu osotoro neregan zure agintea. Batayoko agintzak berizturikan, Satan dongea, bere egintzak eta aundikeriak bein betiko uzten ditut. Nere egipen guziak gogoz eskeintzen dizkizut, Jesukisto gure Jaunaren Biotz oreri, gizon guziak zu eza-gutu ta beren biotzetan Érege baketsua izan zaitezten. Olaxen.

Barkapen osoa irabazteko, iru Aita gure, Agur Maria ta Aintza esango dira Aita Santuaren asmo-etarako. (Bitartean zerbait abestu daiteke. Barkapena irabazteko aitortu ta jaunaitu beara da).

EGUNEROKO AZKEN-OTOITZA

Jesukisto gure Érege! Zu zera éri guztietako Érege, agintarien eta menpekoen Buru. Gizon gaiztoak éridietako agintea zuregandik baztertu, ta zere Elizaren eskubideak ere ukatu egiten dituzte; ez zaitue Éregetzat ezagutu nai; zure Legea ez dute ontzat artzen; eta Elizama azpiratu nai dute, éridiko agintariak beste iñoren menpean ez omen dutela egon bear ta. Guk, beriz, munduko agintari oroen Buru ta Érege zerala iatoitzen degu. Izaki denaren Érege nagusi jarri zaitu Jainko Aitak; éregien Érege ta agintedunen Jaun eta jabe zera; Éroma'ko Doibatza, Eliz Ama, zuk ipiñia, zure ordezkoa, zere eskubidien zaitzalea da; eta beronen aginduak betetzen beartuta daude éridietako agintari ta menpeko guziak. Zure aginte ta éregetza nunai aitoitzen gerturik gaude; baita, artara beartzen ba-gaituzte, geren zañetako odolez egiztatzeko ere. Gora Jesukisto gure Érege nausia! Zu bakarrik zera deuna, zu bakarrik Jauna, zu bakarrik goyena, Jesukisto Jainko ta Érege!

Zeru-luñetako Éregiña, zeruan Jesukisto zure Semearen eskuyan, eguzkiz jantzirik, oñetan ilargia ta izañak burestun dituzula, zauden Ama garbia! Zabaldu ezazu luñ-gañe osoan zure Seme maitearen éregetza, mundu ontan gizakume guziak Bera Éregetzat artuta, zeruko éreña iritxi dezaten. Olaxen.

Jesus'en Biotzaren Árendia esanaz bukatu daike. Azkenean dago.

II Eguna

JESUKISTO, GIZONA DANEZ, GURE ÉREGE DA

Jainkoaren Itza gizatu egin zan, edo Jainko-Semea gizondu. Gertaera ariñari au Ama Neskaria-
ren sabel donean bete zan, Goteunaren, Espiritu
Santuaren, egitez. Aiezkeru, Jesukisto egizko Jain-
ko ta Gizona da. Jainko-Semea gizon egitea, or-
dea, gizonengatik gertatu zan, gizonak aren itzak
entzun eta ikasbideak antzartu zitzen. Ortarako-
xe, txikitandik geron eredu izateko, aurtxo jayo nai
izan zuan. Jesukisto, ba, gizona danez ere Érege
da: bai jainkotasuna ta gizatasuna notin edo lagun
bakañarenak ditualako, baita Aita befikoak almena,
omena ta éregetza eman zizkiolako, ere. «Sion men-
dian Érege izendatu zan, eta ériak oñordetu ta uru-
tietako éridiak ere beretu egin zituan. Aiezkeru,
bere jaureñiak, bere éreñuak, ez du azkenik eta zu-
zentzaz ta pakez aberastuta dago». Aingeruak ere
gizonduko zan Jainko-Semearen éregetza lendanik
ontzat artu beña izan zuten, eta aintzakotzat artu
nai izan etzutenak befiko galdu ziran. Omengaria
gizonarentzat Jainko - Gizona izaki guzien Érege
izatea!

Mundu ontako zenbait éregek érege-izena beste-
rik ez dute; Jesukisto'k, ordea, izena ta izana, bene-
tako éregeari dagozkion aginte ta eskubide osoak
ditu. Jainko Aitak guzien érege jañi zuanean, legeak
egiteko eskubidea, menpekoak beartzeko indara ta
sariztu ta zigortzeko mendea eman zizkion. Esku-
bide abek Jesukisto'k animetan batez ere betetzen
ditu. Argi ta garbi esan zuan berak: Lege zaña ken-
tzera etzetoñela, obeki beterazitzera baizik, ortara-
ko beaño ziran agindu beñiak ipiñirikan. Onak sa-

riztu ta gaiztoak zigor'katzeko, beriz, ez du beste inoren laguntzarik bear, bera da-ta epaikaririk zuzenena, gizon-barena zearo aztertu ta ikuskatzen duana; eta zuzentasun utsa dalako, onak atsegiñez sariztu ta bere aginduak betetzen ez dituztenak bertiko onazez zigortzean ezin dezake okerik egin.

Erege nausi onen menpeko izan nai dezun kristaua! Orañarte ainbeste bider ausi dituzu bere aginduak! Barkapena eskatzeko garaya damaizu ta barkatzeko gerturik dago oraindik. Eriotza-ezkero, ordea, ez da artarako betarik izango... Gaurgeroz zintzoki men-egiozu ba; bere aginduak zearo bete itzazu, ta zeruko atsegiñez sariztuko zaitu. Erabaki egokiak eratu ta eskañak eskatu itzazu.

III Eguna

JESUKISTO, JAINKO TA GIZONA DANEZ, GURE ÉREGE DA

Gure lenbiziko gurasoak obenaz, pekatu egiñaz, Jainkoaren aserea berenganatu zutenezkero, Jaunaren asere ori etzitekean gozatu ta gizona bere seme izatera beriro iritxi, bitarteko opagai egokirik gabe. Ortarako, baña, opagai egokia nun arkitu? Gizonak pekatuagatik bere bizia emanañen, Jainkoari egiñiko iraña ezin zan ordeztu ta atzindu, pekatuak Jainkoari egiten dion iraña neurigabekoa da-ta. Jainkoa bera naikoa zan; baña ileziña danezkero, etzitekean opagaitzat artu. Ara baña, Jesukisto Jainko ta Gizona, opagai egokia. Gizona danez, il dai-teke; eta Jainko danez, bere eriotza aldin edo balio ezin aundiagokoa da. Orela Jesukisto'k goiko Jaunaren aserea gozatu ta gizona loturik zeukan txerena-ren lokariak eten, eta gizona Jainkoaren seme egiñik, zeruko ateak iriki zizkion. Beraz, Jesukisto gu-

re Érege da; bere odolez erosi ta eriotzaz zerurako irabazi gaituan Érege maitea. Aita betikoak guri, Pilato'k judaíai baño obeto esan dizaguke: Ona emen, zuen Éregea, Eroslea dezue-ta.

Jesukisto gure Éregea ez da munduko beste ére-gien antzekoa. Abek beren bakaulki edo exertokia menpekoen odolaz sendotu ta érien lanez aberastu egin oi dira. Jesukistok, ordea, gu bere menpekoak goratu ta aberastutzeaíren, bere zañetako odol gu-zia ixuri zuan, eta laidoz ta lotsakizunez bete izan zan. Gurutzean josirik dagon Jesukisto da gure egiz-ko Éregea. Gurutzetik erakusten digu berari jaíai-turik irabazi bear degun zeruko éreñua, ta bertara eltzeko ibili bear geran bidea. Bide au ez da lasai-tasun-bidea, buru-ukapen eta ildura-bidea baizik; ez da atsegin-bidea gurutze-bidea baizik.

Eta zuk, kristau oírek, min eta nekerikan gabe jaíaitu nai izan diozu zure érege oneri? Atsegiñe-tan zeundela, zere burua ilduratu-gabe, irabazi nai izan dezu goiko jaureía, zeruko éreñua? Ez al zenekian oírela Jesukisto'ren ikuírin edo bandera-pe-an ezin bizi zintekeala? Gaurdanik bestela aritzeko asmo sendoa arítzazu, ta bear dituzun eskaíak ere eskatu...

IV Eguna

JESUKISTO NORBERAREN ÉREGE

Jesukisto Jainkoa danez gizonaren Egilea da; Jain-ko-Gizona danez, gizonaren Eroslea; eta Gizona danez, beste gizakumien arau ta eredua, zerura iristeko antzaítu bear dan eredu bakaía. Jesukistok batayoaren bidez beríztu egiten gaitu, bizi beía, goitiko bizia emanikan; Sendatzaz, Konfirmazio-bi-dez, indaítu egiten gaitu, zeruko bidean arkituko di-tugun erorbide ta zoztoíak garaitzeko; animako

burukaldietan artzen ditugun zauriak Aitor'tzez sendatzen dizkigu; Eukaristian bere gorputz, odol, anima ta jainkotasuna emanik gizonakin bat-bat egiten da; eriotz-orduko larialdiak Azken-igurtziz gozatzen dizkio, eta azkenean zeruko ereñuaren jabe egin. Gizonak duan on guztia Jesukisto'k eman dio, ta itxoin dezakena ere beragandik itxoin bear du. Jesukisto, beraz, gizonaren jabea da, gizonaren egizko Jaun eta Erege bakara. Ortik dator gizonak Kisto bere Eregea ezagutu ta maitatu, ta beti bere mo'oi izateko bearkizuna.

Jesukisto gizakume bakoitzaren Erege danezkero, gizakumea bere egipen guzietan, agirietan eta ezkutuetan, Kisto'ren mo'oi zintzo bezela ari bearkitzake. Amaika bider bestela aritzen da baña! Maiz etsayaren zirikaldua dator'eneko, Jesukisto utzi ta Satan erege beltza jabetzat artzen du, ta gizonak bere biotzean Jainkoaren etsai amoratuari leku egiten dio. Beste batzuek ixilean Jesukisto Eregetzat ezagutuaren, agirian bere menpeko agertzeko ez dute alegin aundirik egiten: aitor'tzera ta jaunartzera nekez juango dira, ta urtean bein geyenaz; jai-egunetan mezarik labur'ena entzungo dute, goizean goizetik mendira eizean edo jolasean juateko atxakia dala-ta uzten ez dutenean; beste elizkizunetara, ezta inola ere, ez dira juango. Jesukisto'ri jaraitzeko nai ta nai-ezkoak diran onomenak: apaltasuna, otzandasuna, ildura, otoitzaletasuna, ta abar, zer diran ere ozta jakingo dute.

Baldin orelakoa ba-zera, kristau maite ori, ez dezu Jesukisto zure biotzeko Erege bakartzat artzen; berak, ordea, biotzeko Erege bakara nai du izan. Zere biotza zearo aztertu ezazu, ta erabaki egokiak artu. Eskatu ortarako beark dezun goi-laguntza ta eska'ra ere...

JESUKISTO SENDI EDO FAMILIEN ÉREGE

Jesukisto gure Jaunak sendia, familia, aspaldi galdutako bere lenengo izaerara ekarri zuan. Gizon batek emakume bat baño geyago aritzeak eta emaztea zapuztutzeko eskubieak galerazi zioten sendiari, beroni Jainkoak lenbizikoan emanikako izaera zindoa. Aitak nai zuan guzia egiteko eskubidea aritzen zuan; ama gizonaren neskamea baizik etzan; eta izaera oren ondoreak semien kalterako izan oi ziran; etasemiok geroago gurasoen laguntzale izan bearéan beren ondatzale izatea maiz gertatu oi zan. Jesukistok, ba, ezkontza ikuerton edo sakramentu egiñik, senar-emazteak goratu ta elkaritu egin zituan. Paul doneak diogunez, senarak Jesukisto'ren antza du, ta emazteak Elizarena. Ona emen bere itzak: «Senara emaztearen buru da, Jesukisto Elizaren Buru bezelaxe. . . ., eta Eliza Jesukisto'ren eskumendean dagon bezela, emazteak ere bakoitza bere senararen eskumendean egon bear dira. Senarok, ordea, norbere emaztea maite ezazute, Jesukistok Eliza bezela» (*Ephes. V*) Baita, kristauen arteko sendian aitak Jaungoiko Aitaren mendetasuna duala ere esan genezake; amak, Espiritu Santuaren maitasuna; eta semeak Jesukisto Jainko Seme ta Gizonaren esangindasuna. Orenгатik, senar-emazteak ezkondu diraneko Jesukisto sendiko Éregetzat aritu bear dute.

Jesukistok sendi guzietan Éregetzat aritu izateko eskubide osoa duala ezin ukatu. Eskubide oreni, ordea, sendiaren aldetiko bear kuna dagokio, etxeko guziak kristau onai dagokienez bizitzeko bear kuna. Gañera egoki da Jesusen Biotzaren irudia etxeko tokirik eder ta agirienean jaritzea, ta anixe Érege-

tzat gurtu edo adoratzea. Irudi orek senar-emazteai, seme-alabai ta auzokoai ere ainbat gauza on irakatsiko dizkie. Jesus'en Biotzeko suganak, senar-emazteai beti elkar maite bear dutela, ta bere arantza ta gurutzea elkar-eraman beara dutela, irakatsiko die; seme-alabai, beriz, Jesus'en Biotz apal eta otzanak gurasoai zor dien asangindasuna irakatsiko die; etxera letoiken beste nornai ere irudi artatik zerbait ikasi-gabe elitzake joango; agian, bere etxean ere Jesukisto Eregetzat jartzeko asmoa etoriko zayo.

Zure etxean, kristaua, Jesukisto lekurik edereanean ipini al dezu? Otoitzak, agurtza edo erosarioa batez ere, bere irudi-aurean etxeko guziak batera egiten al dituzute? Emendik aurera olaxen egiteko erabaki ezazu, ta bear dituzun eskarak eskatu...

VI Eguna

JESUKISTO ERIAREN EREGE

Eria sendi edo familiak batuta egindako elkartea da; eta Jesukisto sendien Erege danezkero, eriarena ere izan bear. Orobat, erietan agintedunak naita-ezkok dira; aginte ori, beriz, Jesukisto'gandik dator, almen edozeinbere Jainkoagandik dator-ta. Oregatikan, eriko Eregetzat artu ta ezagutu izateko eskubide osoa du Jesukisto gure Jaunak; eta eriko agintariak Erege onen aginduak zearo bete ta besteai ere beterazitzeko bearturik daude. Eritaren zoriona ez dago ondasunetan bakarrik; pakea, jainkozaletasuna, elkari laguntzea, ta abar, bilatu ta geitu bear ditu eriko agintariak. Bere agintea eritaren bidez artu ba-du ere, Jainkoagandik etori zaiola us-te ba-du, eriar berari dagozkion gauzetan zintzoki ta zearo ariko da; eta ori dakusten eritarak beren

agintariai zor zayen lotsa ta esangindasuna ez dizkie ukatuko. Ortik etoriko da erriaren benetako aurerapena ta zoriona. «Eria Jaunak zaitzen ezpa du, jauirlarien lanak alpeirikakoak izango dira»; Jainkoak eria zaitzea nai ba-degu, ordea, Jesukisto erriaren Eregetzat artu bear degu.

Erian Jesukisto Eregetzat artu dutela era askotan erakutsi bear dute, bai agintariak baita eritar guziak ere. Agintariak, eliz-gizonai laguntza ta begirunea ez dizkie ukatuko, jai-egunetan lanik ez egiteko agindua zearo beteraziko dute, birautirik baldin bada gogorki zigortatuko dute, ta dantza eta eresi edo musika lizunak debekatu. Gañera eriko etxena Jesusen Biotzaren irudia jañi ta batzaña bere aurrean izatea oso egoki litzake. Eritarak, Jesukisto Eregetzat artu dutela erakusteko, agintea gizon zintzoen eskuetan jañi dedin eta beren egikizunak zearo bete ditezen al duten guzia egin bear dute. Orobat, Jesukisto eriko Eregearen jauregia elizadanta, jauregi ori apaindurik edukitzeko beren laguntza oparo eman, eta noizpeinka Eregeari ikustalditxoa egitera elizaratzea on litzake.

Ez al dezu orela egiten zuk, kristau orek? Erabaki egokiak eratu, ta zearo betetzeko eskaña eskatu ezazu...

VII Eguna

JESUKISTO ERIDIAREN EREGE

Sendi edo familiak elkarturik eriak sortu diran bezela, eriak elkarturikan eridiak sortu dira; eta Jesukisto sendi ta erien Erege danezkero, eridiena ere izan bear. Gañera, eridietako agintariak legeak egiteko-ta duten eskubidea Jainkoa'gandikoa da, almen ororen iturria Jainkoa baita. Ez daitezke ba ukatu Jesukistok eridietan agintzeko dituan eskubi-

deak. Doipuruak, Aita Santuak, jai beñi au ortarako batez ere sortu du: Jesukisto gizartean Éregetzat ezagutu ta jañiazitzeko. Éregien Érege ta agintadunen Jaun eta Jabe danekero, Jesukisto gizartean egizko Érege izatea nai du Elizamak, eta ortarako egiñalak egiten ditu. Elizaren gogo au guztiz bete-ko ba-litz, elirake ainbeste guda edo gerate sortu-ko eridien artean; elirake ainbat matxiñada ta nas-te gertatuko langilien artean; elirake Elizaren kalte-zko ta eria-aren beraren kalte-zko amaika lege jañi-ko, zuzentasun-arauzkoak bakañik baizik.

Jesukisto gizartean Éregetzat arñuazitzeko arloa guziona da: aundi ta txiki, aberats eta beañtsu, orok ekin beañ diogu sail onerik. Agintariak kato-liko zintzoak dirala erakutsi bezate beren egipen guzietan, agirian eta etxe-bañuan; Elizaren eskubi-deak ezagutu ta aldeztu bitzate; langilien alde lege egokiak jañi, beañtsuai lagundu, ta abañ. Menpe-koak agintaria aukeratzeko eskubidea dutenean kristau zintzoa baizik ez aukeratu; eguneroko pa-per onai lagundu ta txañai aurka egin, norberaren etxera batez ere iñoiz sartzen utzi-gabe; beren seme-alabatxoai ikastetxietan kristauari ez dagokion ikazkizunik ematen ote zayen ikusi; eta beste era askotan sayatu beañ dira Jesukisto'ren éregetza zabaldu ta edazten.

Zu, sayatzen al zera? Jesukisto gizartean egizko Érege izan dedin ez al dezu ezer egin beañ? Ortar-ako asmo ta erabaki egokiak arñu itzazu ta goi-es-kaña ere eskatu.

VIII Eguna

JESUKISTO ELIZAREN ÉREGE

Doibatza, Elizama, Jesukisto gure Jaunak berak jañi zuan: Doipurua, Aita Santua, Jesukisto'ren or-

dezkoa baizik ez da; eta Doipuruak dituan eskubide guziak Jesukisto'k eman zizkion. Jesukisto Elizaren egizko Érege da, ba; eta ez dezake beste éregerik izan. Órengatik, Eliza ez dago beste iñungo érege ta agintarien menpean: bere zeregiñak betetzeko azkatasun osoa, iñoren menpean-gabe bizitzeko eskubide betea du. Iñork eragozteke bere ikasbideko ziñiskayak zabaldu ta irakasteko, gotzai ta beste nagusiak nunai izendatu ta jaítzeko, ikuñtonak, sakramentua-arautuk, ta legeak egiteko, ziñistedunen elkarénganako artu-emanak izateko, ondasun-jabe izateko-ta, eskubide oso-osoa duala ez genezake ukatu. Éridietako agintariak, ordea, Elizaren eskubide oyek aintzakotzat artu ta eragozpiderik ez jaítzeko bearítuta daude. Eta éridia Elizamagandik guztiz berezitura egon bear dala ta Elizarekiko bear-kizunik ez duala esatea, gezuñ utsa ta IX Pio Aita Santuak gaiztetsitako lagakeria, liberalismoa, da.

Kristau onak Jesukisto'ren éreñua dan Elizaren eskubideak aitoñtu ez ezik, Eliza bera toki guzieta-ra edatu ta zabaltzeko egiñalean sayatu bear dira. Ortarako, urutietan ziñisgabekoak Elizaratzen ari diran belgundariei, misiolariei, ez dizayegun gere laguntza ukatu, otoitzez ta al ba-degu diruz ere urgazi dizayegun. Elizaren eskubide ta almenak ezes-ten dituztenai, ordea, ez dizayegun iñola ere lagun-du. Órenbesteren gai ta duin da, izan ere, gure Elizama maitagaría, Jesukisto'ren jaureñi edo éreñu begikoa, ainbeste ziñopa edo martiri bulardetsuen odolez goríztua, ainbeste deunen eredu ta egipen donez edereztua!

Gu ere batayoaren bidez Elizaren gorputzean gaudelako poztu gaitezen, eta iñoiz ez iñoiz pekatuz bere animatik alde ez egiteko eskaña eskatu dezagun, baita bear ditugun beste graziak ere.

IX Eguna

JESUKISTO SANTUEN ÉREGE

Jesukisto santuen egizko Érege da. Bere jañaitzailei deuntasunerako, santutasunerako, dei egin die. Mendiko itzaldian onela itz egin zien: Zoriontsuak biotzez beartsu diranak, zoriontsuak otzanak, zoriontsuak negar egiten dutenak, zoriontsuak zuzenaren gose ta egañi diranak, zoriontsuak erukioñak, zoriontsuak biotz-garbidunak, zoriontsuak paketsuak, zoriontsuak zuzentasunagatik goñoto ta erasoak artzen dituztenak. Gañera gurutzea artu ta berari jañaitzeko esan zigun. Érege maitagañi oni erantzunik kristau zintzo askok munduko ondasunak utzita bakartegietara ta lekaretxietara jo dute, Jesukisto'ri urbilago jañaitzeko; beste asko munduan bertan ere ilduraz ta buru-ukapenez deuntasuneko mañarik goyengoenetara iritxi dira; beste asko ta askok Érege onen alde neke-niñik aundienak egari edo eraman eta beren bizia ere pozik eman dute.

Jesukisto'k bere ereñua mundu ontakoa etzala esan zion Pilato'ri. Ez da mundu ontakoa, baña bertan dago: santuen animetan egizko ereñua, benetako agintea, du Jesukisto'k. Gure etsayak ditugun deabrua, mundua ta aragia azpiratuezkero, gure animak Jesukistoren menpeko dira, gure animetan bere agintza zearo betetzen da. Bera da gure eredua: bere bizibidea antzartu bear da deuntasunera iristeko. Bere antzekoago, ta deunago edo santuago izango gera. Azken-egunean Jesukisto santuak bere inguruan dituala agertuko da: beren burua ilduratu ta Jainkoa maite-maite izan dutenak izango dira Jesukisto'ren burestun edo koroirik edereña.

Egun artan santuen artean egon nai ba-degu, orain erabaki egokiak eratu ta egiñalean betetzen sayatu gaitezten; ortarako Jaunari bere eskaña eskatu dizayogun...

JESUKISTO EREGEAREN JAI-EGUNA

BI EREGEAK

Bi erege ari dira animen jabe izan nairik: Jesukisto goiko Eregea ta Satan beko erege beltza. Eriotza-etzkerro, anima bakoitza edo lenbizikoaren edo bigarrenaren menpean geratuko da, ta betiko geratu ere. Satan su-leizeko buruak orain bere jaraitzaleai lasaitasun osoa uzten die, ta onen eta Jainkoaren aurka goñotoa ta amoru bizia piztutzen dizkie. Bere menpekorik onenak lizunak, birautiak gizeraleak, lapurak-eta dira. Bere jaraitzaleak askotu ta geitzeko erabiltzen dituan bideak lagun gaiztoak, paper zikiñak, ikuskizun lizunak eta ore-lako beste asko dira. Erege beltz onen mendekoak lotsagarro bizi, ta eriotz bildurgarria igarotakoan betiko sutzarretara doaz. Jesukisto Eregearen jaraitzaleai alderantzira gertatzen zaye. Erege maitagarri onek bere aginduak zearo betetzera beartzen ditu, Jainkoarenganako ta elkarrenganako maitasuna agindu ta buru-ildura ta ukapena eskatzen dizkie. Apalak, otzanak, ongileak dira bere jaraitzalerik onenak. Paper onak, elizkizunak, itzaldiak, ikuñton edo sakramentuak dira gizonak bere ikuñin edo banderapera ekartzeko bideak. Bere jaraitzaleai barengo baretasuna, pakea, eriotz ona ta azkenik betiko zoriona ematen dizkie.

Eriotz-ordua igaroezkero gizakume bakoitza edo Jesukistoren edo Satan érege beltzaren menpean betiko lotuko da. Baña, beste guziak ere nor nor izan dan jakin dezaten, azken-eguneko batzar' aundian bereizte ikaragarria egingo da: Jesukisto'ren menpekoak alde baten, bere eskuyaldean, bilduko dira; Ideabruaren menpekoak, eske'aldean Satan buru dutela. Epalerik zorotzenak, Jesukisto'k berak, batzuek eta besteak epaituko ditu. Gaiztoai onela itz-egingo die: Alde nigandikan, zorigaiztokuok, zoazte Satan eta bere jaraitzaleai gertu zitzayen betiko sutzara! Eta bapatean su-leize ikaragarri artara bein betiko amilduko dira, antxen beren érege beltzaren azpian amai-gabe kiskaltzen irauteko . . . Bere eskuyaldekoai, ordea, mateki onela deituko die: Etorri, nere Aitak onetsitako eyek; zatozte, betidanik gertuta zenuen jau'reñiaz jabetzera. Eta belaxe zorionekoak, beren Érege maitea goraltzen, aundikiro zeruratuko dira.

Zer deizkiozu, kristau o'rek, zer deizkiozu azkenengo egun gogoangarri artan gertatuko dan oneri? Zein izango ote da orduan zure érege? Jesukisto izatea nai ba-dezu, ointxen zure Érege baka'rtzat berezi ta artu bear' dezu, ta bere mepekoai dago-kienez bizi. O'rela bizitzeko bearezkoa dezu Jainkoaren laguntza; eskatu ezayezu Jesukisto'ri ta bere Ama erukio'ari.

XI Pio'ren aginduz Jk. Éregearen jayan esatekoa

(“Boletin Oficial“ en 1926' g. Urtean agertu zan bezela)

Jesus, Gizadiaren Salbatzale gozo, atsegiña! Begira eiguzu zure aldare aúrean auspezturik gaude-noi. Zureak gera, zureak izan nai degu, eta zurekin gero ta geiago bat egiñik bizi gaitezen, gutako bakoitzak bere burua ementxe eskeintzen dizu Zuri.

Askok, zoritxarez, ez zaituzte Zu oraindik ezagutzen, beste askok zure Aginduak alde batera utzi-ta baztatu egin zaituzte Zu. Guztiak eruki izan itzazu Jesus On orek, eta erakari danak zure Jaungoikozko Biotz oretara.

Jauna, artu bizaitzate beren Éregetzat, ez zure mendean beti bizi diranak bakarik, baita Zugandik uruti dabiltzan seme galtzaleak ere; datozela, aren, datozela lenbailen beren etxealdera, goseak eta bearez il ez ditezen. Artu bizaitzate beren Éregetzat gezurak iruzurturik edo asareak sakabanaturik dauzkan guztiak; eramaitzu danak egiaren kai ta sinismenaren batasunera, artalde bat eta artzai bat besterik izan ez dedin laister munduan. Artu bizaitzate beren Éregetzat jentilkerietako ta mahomataren arteko ilunpean bizi diranak; erakari itzazu guztiak zure Éreinuko argi edereera. Begira ezaiozu aizkenik, erukizko begiz, antziña zure kutuna zan eriari; itxuri ezaiozu burutik bera, orain beretzat askatasun ta bizitzazko Bataioa izan dedin, bein batean bere gain izan zedila eskatu zuan Odola. Emaiozu Jauna, zure Elizari osotasuna ta lasaitasun bete-betea; emaiezu eri guztiai zuzentasuna ta pakea: ezdedila, aren, lur zabalean baztar batetik besteraño deadar au besterik entzun: «Gora Jesus'en Biotza; Berakekari digu osasuna; Aintza ta Omena Berari orain da beti». Amen.

JESUS'EN BIOTZAREN LITANIAK

- Jauna, eruki zakigu; *Jauna eruki zakigu.*
Jesukisto, eruki zakigu; *Jesukisto...*
Jauna, eruki zakigu; *Jauna...*
Jesukisto, entzun eiguzu; *Jesukisto...*
Jesukisto, adi zaiguzu; *Jesukisto...*
Zeruko Aita Jaungoikoa... *Eruki zakigu.*
Gizadiaren Salbatzailea zeran Jaungoikoaren Semea... *Eruki zakigu.*
Espiritu Santu Jaungoikoa... *Eruki...*
Irutasun Done, Jaungoiko Bakaña... *Eruki...*
Betiko Aitaren Seme Jesus'en Biotza. *Eruki...*
Ama Birjiñaren sabelean Espiritu Santuak sortu zinduan Jesus'en Biotza.
Jaungoikoaren Semearekin bat egiñik zauden Jesus'en Biotza.
Neurigabego aunditasunez jantziñik zauden Jesus'en Biotza.
Jaungoikoaren Eliza Donea zeran Jesus'en Biotza.
Jaungoiko Aundiaren Gela zeran Jesus'en Biotza.
Jaungoikoaren Jauregia ta zeruko Atea zeran Jesus'en Biotza.
Goimaitasunezko labe gorria zeran Jesus'en Biotza.
Zuzentasun ta maitetasun-ontzia zeran Jesus'en Biotza.
Ontasun ta maitetasunez beterik zauden Jesus'en Biotza.
Onbide guztien osin ondorik gabea zeran Jesus'en Biotza.
Jesus'en Biotza goragari-goragarria.
Gure biotz guztien Erege ta Eguzkia zeran Jesus'en Biotza.
Jakinduri ta jakintza guztien gordairuak zugaran dituzun Jesus'en Biotza.

Jaungoikoa Bera bere betetasun guztian bizi dan
Jesus'en Biotza.

Aitaren atsegiña zeran Jesus'en Biotza.

Zure betetasunetik guztioi eman diguzun Jesus'en
Biotza.

Betikò mendi-bizkañen gurari bizia zeran Jesus'en
Biotza.

Eraman eta eruki aundiko Jesus'en Biotza.

Eskean datozkitzun guztientzat emale aberatsa ze-
ran Jesus'en Biotza.

Santutasun eta bizitzaren iturria zeran Jesus'en
Biotza.

Pekatoriok Zeruko Aitaren Asaie-gozagañi zaitu-
gun Jesus'en Biotza.

Jesus'en Biotza iguin-burlaz ase ta betea.

Gure gaiztakeriengatik zatitua izan ziran Jesus'en
Biotza.

Iltzeraño Aitaren esanekoa izan ziran Jesus'en
Biotza.

Jesus'en Biotz lantzaz zulatua.

Poz guztien iturria zeran Jesus'en Biotza.

Gure bizi ta piztuera zeran Jesus'en Biotza.

Gure Aitarekiko pake ta adiskidegañi zaitugun Je-
sus'en Biotza.

Pekatarioen aldeko oparia zeran Jesus'en Biotza.

Geren ustea Zugan daukagunontzat osasuna zeran
Jesus'en Biotza.

Zugan iltzen diranen itxadopena zeran Jesus'en
Biotza.

Santu guztien atsegiña zeran Jesus'en Biotza.

Gizonen pekatuak kentzen dituzun Jaingoikoaren
Bildotsa. . . *Barka zaiguzu, Jauna.*

Gizonen pekatuak. . . *Entzun eiguzu, Jauna.*


Gizonen pekatuak. . . *Eruki zakigu, Jauna.*

—Jesus apal eta biotz berakoa.

—Egizu gure biotza zurearen antzekoa.

OTOITZA

Guzialdun ta betiko Jaungoikoa ¡Zure Seme mai-
tearen Biotzari eta Berak pekatarien alde eskiñitako
gorapen ta ordain-sariai begira zaiezu, aŕen; eta
eruki-eskean datozkitzun guztioi eman zure barka-
mena, Jauna; gizaldi ta gizaldietan Zurekin ta Es-
piritu Santuarekin batean Eŕege bizi dan Jesukisto
zure Seme oŕen beraren izenean. Amen.





AIZUAK

Nihil obstat

GERVASIUS DE IRUARITZAGA, C. M. F.

Imprimi potest

HERACLIUS MATUTE, C. M. F.
Sup. Prov.



Nihil obstat

LIC. PETRUS DE ANASAGASTI

Imprimatur

VICTORIAE, DIE 19 IULII 1928
MATTHAEUS EPISCOPUS VICTORIENSIS



Faint, illegible text, possibly bleed-through from the reverse side of the page.

AIZLAK

Nihil obstat

Genesius de Lauritana, C.M.F.

Imprimi potest

**Habaculus Martin, C.M.F.
Sod. P. B. C.**

Nihil obstat

La. Petrus de Assagata

Imprimatur

**Victorinus, de 19 Jan 1922
Martinus Victorinus Victorinus**



Zabala-Arana abaren euzkerazko idaztiak:

Edesti Dauna, 1921

Euzko-Lutelesti Txikia, 1922

Daneur tiztia, 1923

Eliztia, 1924

Aste Gurena, 1924

Argija, kirijotz-alija (Bidauratzaga sendk. asmaurikoa), 1927

Euzkerazko zenbakera, 1928

Jesukisto Efegeari Bederatzuena, bizkayeraz.

Jesukisto Efegeari Bederatzuena, gipuzkoeraz.